

ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA

6/2013 GAIA

IDATZIZKO KOMUNIKABIDE BATEAN ARGITARATUTAKO INFORMAZIO BATEN HARIRA (...)KO ZUZENDARI NAGUSIAK ETIKA ETA JOKABIDE-KODEAREN (AURRERANTZEAN, EJK) BALIZKO URRATZE BAT EGIN IZANARI BURUZ (...)KO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUKO PRESIDENTEAK PLANTEATUTAKO AUZIARI BURUZKO AKORDIOA.

1.- 2013ko urriaren 28an, Sozietateko Administrazio Kontseiluko Presidenteak Etika Publikorako Batzordeko (aurrerantzean, EPB) Presidenteari zuzendutako idatzi bat erregistratu zuen. Idatzian, batzordeak iritzia eman zezan eskatzen zen, Zuzendari Nagusiak EJKren balizko urratzea egin izanari buruz, idatzizko komunikabide batean duela gutxi argitaratutako informazio baten harira, onestasuarekin, desinteres subjektiboarekin, osotasunarekin, inpartzialtasunarekin eta objektibotasunarekin lotutako jarreraren, jokaeraren eta portaeraren aurkako kontratu-jarduera leporatzen baitaio Zuzendari Nagusiari.

Itxuraz, komunikabideak aipatutako jarduerak kontratu batekin du zerikusia. Kontratu hura egin zenean, Zuzendari Nagusiak esleitu eta sinatu zuen, eta EPBren jarduerari buruzko idatzian kontratazio-espedientearen kopia oso bat dago erantsita.

2.- 2013ko urriaren 30ean, EPBk 24 orduko epea eman zion Sozietateko Zuzendari Nagusiari, egokiak iruditzen zitzaizkion alegazioak egiteko, EPBk kasuaren aurrekariak ezagutzeko, eta hartara, kontrastatzeko elementuak izanik, balizko kasua zorrotasunez aztertu eta dagokion erabakia hartu ahal izateko.

3.- Entzuna izateko eskubidea betez, 2013ko urriaren 31n, Zuzendari Nagusiak idatzi bat aurkeztu zion EPBko idazkariari. Idatzian, egokiak iruditzen zitzaizkion "adierazpenak eta alegazioak" aurkeztu zituen, hamar puntutan xehatuta, batzordeak beharrezko irizpen-osagaiak izan zitzan, erabakia behar bezala hartzeko.

4.- Funtsean, idatzian alegazio hauek ageri dira:

- Interesdunaren lan-ibilbide zabala -zenbait bosturtekoz egina, sektore publikoko eta pribatuko zenbait erakundetan- uneoro publikoa eta ezaguna izan dela, eta ez dela inoiz disimulatu, estali edo ezkutatu.
- Sektore pribatuan lan egin duen enpresetako bakar batean ere ez duela senerik izan interesdunak, ez eta akzioetan partaidetzarik edo inolako interes ekonomikorik ere.

- Interesdunak eta haren familiakoek ez dutela loturarik, ez eta loturak izateko itxaropenik ere, hark lan egin duen sektore pribatuko enpresekin. Nabarmendu beharrekoa da interesdunak ez duela "inolako eszedentziatik eratorritako eskubiderik, enpresa bakar batean ere".
- Pentsako informazioan agertutako kontratazio-espediterearen kasu konkretuan, EPB honen esku-hartzea eragin duenean, interesdunaren partaidetza "*Sozietateko Kontratatzeko Barne Jarraibideetan* Zuzendari Nagusiarentzat ezarritako betebeharrak betetzera mugatu dela; esleipen-proposamena baliozkotzera, alegia. Izan ere, kontratua egiten ez du Zuzendari Nagusiak parte hartzen, eta izapide-fluxuak tresna informatiko baten bidez egiten dira". Eta hortik ondorioztatzen da -kasu honetan jarraitu den kontratazio-prozedura markatu duten izapideak sakonki berrikusi ondoren, egiaztatu da Zuzendari Nagusiaren "lehen esku-hartzea eta bakarra" esleipenaren unekoa izan zela- bere jarrera "inibizio aktibokoa [...] izan zela lehiaketa irabazi zuen eskaintza aukeratzeko prozesuan".
- Jarduera hau eragin duen kontratazio-espediterea xede duen zerbitzua 2006. urteaz geroztik ematen dela, fabrikatzaile beraren teknologia berdin-berdina erabiliz, eta 2010. urteaz geroztik, horrekin lotuta egindako kontratazioen arduraduna pertsona bera izan dela, teknikaren ikuspegitik; hau da, esleipen-txostena hark egin duela.

Bestalde, 2010etik 2012ra bitartean, espediterearen xede den teknologiaren fabrikatzailearekin egindako materialen eta zerbitzuen kontratuak zuzenean esleitu ziren, eskusibotasun-arrazoia zirela eta. 2013an, publizitatea eta lehia eta guztizko kontratazioak izapidetzeari ekin zitzaion.

- Haren parte-hartzeak prozesuan "ez duela kasu bakar batean ere eragin inolako epairik edo baloraziorik egitea, ez eta kalterik ere Administrazioarentzat, aurkakoa baizik; teknikariek, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen irizpideak eta aginduak eta Administrazio Klausula Bereziak eta Teknikoak betez, eskaintza onena aukeratu zuten". Hortik ondorioztatzen da ez duela egin "pertsona fisiko edo juridikoren batengan susmorik edo faboritismorik eragin duen jarduerarik", eta ezin daitekeela inola ere ondorioztatu haren jardunetik "zuzenean edo zeharka inolako abantailarik edo desabantailarik lortu denik edozein pertsonarentzat edo edozein erakunderentzat".
- Interesdunaren esku-hartzeak kontratazio-prozesuan "aurkeztutako eskaintzei buruzko epairik edo baloraziorik egitea ez dakarrenez, ez dagoela inolako talkarik, ez pertsonalik ez publikorik", eta halaber, ezin da esan "inolako negoziaririk edo jarduerarik zuenik, zuzenean edo zeharka interes publikoekin talka egiten zuenik". (...) -en bezala -dio interesdunak- "eremu honetako erabakiak zerbitzu teknikoek hartzen dituzte", ezin da prozeduran haiek duten parte-hartzearen objektibotasuna, inpartzialtasuna eta desinteres subjektiboa auzitan jarri.
- Zerbitzu teknikoek egindako esleipen-txostena oinarri hartuta, interesdunak egin zezakeen jarduera bakarra "etikoki eta juridikoki bideratzea zela".

- EPB honen jarduerak "babesgabetasun-sentsazioa eragin didala, nire lan-ibilbide zabalari eta nire duintasun eta izen on pertsonalari eta profesionalari eragin diezaiokeen prozesua zenbait informaziok baldintzatu baitezakete, bere kabuz nire lan-jarduera aurrez epaitzen dutenak, eta Administrazio horretako kide naizenez eta errespetatzen dudanez, ezin dut aurka egin". Babesgabetasun-sentsazio hori handitu egiten da ohartzean "gai hau batzordeak aztertuko duela bi egun baino gutxiagoko epean, gertaerak ziurtzat jota, niri entzun gabe eta nire jarduera kontrastatzeko beste elementurik hartu gabe, niri soilik 24 orduko epea emanda egoki iruditzen zaizkidan adierazpenak eta alegazioak egin ditzadan".

3.- EJKren 16.4 ataleko bigarren tartekian jasotako komunikazio telematikoko mekanismoak baliatuz, landu beharreko gaiaren "nolakotasuna eta premia" kontuan hartuta, EPBk hartu du honako

ERABAKIA:

I.- AURREKARIAK

1.- EJK, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartua 2013ko maiatzaren 28an egindako bileran, politikaren zentzu etikoa indarberritzeko xedez sortu zen, eta herritarrek beren erakundeetan konfiantza berreskuratzea du jomuga.

Helburu horrekin, Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikodunei zer jokabide, jarrera eta portaera eska dakizkiekeen zehazten du kodeak, horien jarduerak, publikoak zein pribatuak, bat etor daitezten dokumentu horretan aurrez finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Azken xedea da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Gobernuaren irudi instituzionala zainduz, haren eraginkortasuna indartuz eta herritarrek erakundeetan duten konfiantza higatzea saihestuz.

2.- EJK oinarrizko bost balioaren inguruan taxutu da –Osotasuna, Bikaintasuna, Politika eta kudeaketa bat etorraztea, Lidergoa eta Berrikuntza–, eta funtsezko sei printzipioen inguruan: Inpartzialtasuna eta Objektibotasuna, Kudeaketari lotutako erantzukizuna, Gardentasuna eta gobernatze irekia, Onestasuna eta desinteres subjektiboa, Errespetua eta Eredugarritasuna.

Balio eta printzipioen esparru horretan, kodeak jokabide, jarrera eta portaera ugari aipatzen ditu, eta horiek dira, hain zuzen ere, EPB honek erreferentzia gisa ezarri behar duen parametroa, beren borondatez kodeari atxikitako kargu publikodunek edo kodearen

zehaztapenak egiaz betetzea nahi duten hirugarrenek batzorde honen esku jartzen dituzten auzi eta dilema etikoei erantzuteko orduan.

Horri dagokionez, kodeak 16.3 ataleko lehenengo puntuan ezartzen du EPB izango dela "oharpen, kontsulta eta iradokizunak jasotzeko eskumena izango duen organoa. Halaber, kode honetan ezarritako aurreikuspenetan adierazitako egokitzapen-proposamenak gauatzeko prozedura jasoko du". Era berean, atal bereko bosgarren puntuan ezartzen du batzordearen ardura izango dela "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko keak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea".

II.- ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKO GAIA

1.- Akordio honen goiburuan ageri diren prentsako informazioek diotenez, Sozietateko Zuzendari Nagusiak (...) enpresa-taldean zerbitzua eman zuen, Zuzendari Nagusi izendatu zuten arte.

Batzordeak ezin izan du behar bezala berretsi alderdi hori. Dena den, interesdunak "adierazpenen eta alegazioen" idatzian gezurtatu ez duenez eta implizituki adierazi ez duenez ere, egiazkotzat hartzen duela ondorioztatu dugu. Idatzi horren 10. puntuan batzorde honek "gertaerak ziurtzat jota" lan egiten duela dioenean, aukera izanda ere ez du ezer gezurtatu, ez eta ñabardurarik egin ere; eta hori funtsezkoa da -bai eta erabakigarria ere- haren jokabidea EJKren aurkakoa den ala ez behar bezala ebaluatzeko. Bistakoa baita kontratatutako enpresa-talde horrekin aurrez harremanik ez balego, interesdunaren ondorengo jarduerak, (...) sozietateari, talde berekoari, kontratu bat esleitzekoak, ez luke arazorik sortuko EJKn finkatutako jokabide-estandarrei egokitzearen ikuspegitik.

2.- Interesduna Zuzendari Nagusi izendatu zuten eta EJKrekiko atxikimendua urte bereko ekainaren 19an sinatu zuen.

3.- 2013ko irailaren 30ean, (...) kontratua, 1.423.784,83 eurokoa, BEZa aparte, (...) -ri esleitzea erabaki zuen. (...) sozietatea (...) enpresa-taldekoa da.

4.- EPBk dakiela interesdunak, EJKrekiko atxikimendua sinatu zuenetik kontratua (...) enpresari esleitzea sinatu zuen bitartean, ez zion kontsulta bakar bat ere egin batzorde honi arestian adierazitako espedientean interesdunaren esku-hartzearen egokitasunari buruz zer iritzi zuen jakiteko. Adierazitako tarte horretan, EJKri atxikitako pertsona askok egin zizkioten kontsultak batzorde honi, eta haietako batzuk EPB osatzeko saioan landu eta erabaki ziren, joan den urriaren 16an. Baina haien artean ez dago interesdunak sinatutakorik.

5.- Komeni da adieraztea, batzorde honek aztergai duen gaia zehazki aztertzeari ekin aurretik, EJK-k interes-gatazkekin lotutako jokabide, jarrera eta portaera batzuk aurreikusten dituen arren, kargu publikodunen jardueretan gai horrekin lotutako dilema etikoek duten garrantzia kontuan hartuta, arlo horretan indarrean dagoen araudia –eta, zehazkiago, kargua hartu aurretik edo ondoren jarduera jakin batzuk egiteari dagokiona– jasota dagoela Eusko Jaurlaritzako goi-kargudunen eta parekatuen bateraezintasun-araubideak berariaz erregulatzen dituen arau juridikoan; horretan, diziplina- eta zigor-erregimen bat ezartzen da, legezkotasun-printzipioari jarraituz lege-mailako testu batean erregulatzen dena.

6.- Beraz, ez dagokio EPB honi interesdunak, Zuzendari Nagusi izanik, goi-kargudunen eta zuzendari teknikoen bateraezintasunen eremuan indarrean dagoen ordenamendu juridikoa urratu duen edo kontratazio publikoaren eremuan urratzeren bat egin duen. Aitzitik, kontratua (...) enpresari esleitzean izandako portaera baloratu behar du -izan ere, interesdunak (...) sozietateko Zuzendari Nagusi izan baino lehen, enpresa hartan egiten zuen lan- EJKren oinarri diren balioetara, printzipioetara, jokabideetara eta portaeretara egokitzen den aztertzeo. Aurrekarien atalean azaldu den moduan, politikaren zentzu etikoa indarberritu behar da, euskal hiritarrek beren erakundeetan duten konfiantza finkatzeko, eta zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren eguneroko jardunean eta haren arduradun politikoen jardunean duten konfiantza finkatzeko.

7.- Horrenbestez, EPBren egitekoa interesdunaren jarduera EJKn aurreikusitako balio, printzipio, jokabide, jarrera eta portaerekin bat datorren zehaztea izango da.

8.- Halaber, zehaztu behar da ez dela EPBren zeregina Administrazio Publikoaren zigor- eta diziplina-erregimenaren esparruan aztergai den kasua ebaztea. Arau-esparru etikoa eta juridikoa desberdinak dira, eta behar bezala bereizi behar dira, elkarrekin nahasi gabe. Eta EJKren hitzaurrekoan argi eta garbi ageri den moduan, haren preskripzioak ez dute berez "balio arauemailerik", konpromiso etikoaren eremuan kokatzen direlako. Planteamendu horrekin koherente izanik, EJK-k, hitzaurrekoan arrazoitutakoaren arabera, alde batera utziko ditu "legezko edo arauzko betebeharren erreferentziak; hau da, ordenamendu juridikotik eratorritako eskakizunak zehazki betetzea, horretarako ematen diren legeetan edo araudietan nabarmendu beharko baitira".

Bereizketa horren arabera, EPB ez zen sortu Administrazio Publikoan lan egiten dutenentzat ordenamendu juridikoan aurreikusten diren zigor- eta diziplina-izaera duten arauak aplikatzeko, baizik bere proposamen eta gomendioen bidez, 2013ko maiatzaren 28an Eusko Jaurlaritzak onartutako EJKn borondatez izena eman duten kargu publikodunen eta parekatuen jokabideak, jarrerak eta portaerak bertan finkatutako estandarretara ahalik gehiena egokitzeo lan egitea. Horrenbestez, jarduera-esparrua aipatutako EJK horrek zehaztutakoa da, eta ez estatuaren *ius puniendi*aren proiektzioa diziplinatzen eta antolatzen duten arau juridikoek ezarritakoa.

9.- EJK-k, inpartzialtasunaren eta objektibotasunaren printzipioak sistematikoki nabarmentzen dituenak, honako hau ezartzen du 5.2.1 atalean: “erabakiak hartzeko prozesuan eta, bereziki, beren eskumenak erabiliz egiten dituztenetan, kargu publikodunek eta parekatuek beti jokatuko dute inpartzialtasun- eta objektibotasun-printzipioen arabera. Printzipio horiek, bereziki, **kontratazio-prozeduretan**, diru-laguntzak ebaztean, arauen aplikazioan edo, azken batean, finantza-baliabideen edo bestelako erabilpenean baliatuko dira”. Mandatu horrekin estuki loturik, 5.2.4 atalak dioenez, goi-kargudunek eta parekatuek “bere eginkizunak zuzen betetzea eragotz edo traba dezaketen interes publiko edo pribatu oro aitortu behar dute, eta beharrezko urratsak egingo dituzte edozein interes-gatazka konpontzeko, organo eskudunei horrelako edozein gorabehera jakinaraziz, garrantzi txikienekoa izanda ere. Horren ondorio da, halaber, erabaki guztiak interes publikoaren eta herritarren onurarako baino ezin hartu ahal izatea, eta guztiz baztertzea erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren, haren senideen, ezagunen edo lagunaren mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza”.

10.- EJKren 6. atalak, kargu publikodun eta parekatuen osotasunari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak biltzen dituenak, ezartzen du, halaber, kargu publikodun eta parekatuen jokabide eta portaera hauek izan beharko dituztela, besteak beste, osotasun-balioari eta inpartzialtasun eta objektibotasun-printzipioei dagokienez:

- "Ez du egingo pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo faboritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer.
- Inoiz ez dituzte erabiliko postu instituzionala edo karguaren ondoriozko pribilegioak zuzenean edo zeharka abantailak lortzeko norberarentzat, hala nola abantailak edo desabantailak lortzeko edozein pertsona edo erakunderentzat, betiere neurri horiek ez badaude babestuta indarreko araudi-esparruan”.

11.- Bestalde, kodearen 11. atalak, kargu publikodunen eta parekatuen onestasanari, desinteres subjektiboari eta haien interes-gatazkak eragozteari buruzko jokabideak eta portaerak zehazten dituenak, jokabideak bi bloketan sailkatzen ditu: interes-gatazkak sor ditzaketenak eta opariei eta izan daitezkeen onurei buruzkoak.

Atal horretan honela definitzen da interes-gatazka: "kargudun publikoek eta parekatuek beren postu publikoaren interesek eta beren interes pribatuek, senideek, edo hirugarren pertsonekin partekatutako interesek bat egiten duten gaietan erabakiak hartzea". Eta interes publikoen eta interesdunaren interesek talka egiten duten edo egin dezaketen egoeretan kargu publikodunek eta parekatuek zer bete behar duten finkatzen da –betiere, legeak ezar dezakeena alde batera utzi gabe, jakina–. Gehienak badaezpadako edo kautelazko neurriak dira, interes-gatazkak saihestea helburu dutenak, noski, baina baita goi-kargudunen eta parekatuen jardunbidean interes-gatazka pizteko aukeraren inguruan sor litezkeen zalantzak edo susmoak errotik erauztea ere. Horiek irakurrita erraz antzematen da ez dutela soilik EJK-k

ezarritako onestasanaren eta desinteres subjektiboaren estandarrari begira sor litezkeen desbideratzeak saihesteko asmoa, eta, horrez gain, desbideratze horiek izate hutsaren inguruko zalantza oro ere uxarazi nahi dela.

Jokabide nabarmenki profilaktiko horien artean, hauek ageri dira:

- “Edozein erabaki edo jardueratan interes propioek eta interes publikoak talka egiten badute, horren berri eman beharko dute jendaurrean, eta inoiz ez dute ezer egingo baldin eta egin beharreko horretan zuzeneko edo zeharkako interes pertsonala badute, edo litekeena bada aipatutako interes-borroka piztea.

Ez du inolako negoziarik edo jarduerarik egingo, zuzenean edo zeharka talka egin badezake interes publikoekin, edo zalantzan jar badezake erabakiak hartzeko prozesuaren edo Herri Administrazioaren funtzionamenduaren objektibotasuna.

- Bere betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duten edo egin dezaketen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitezkeen kargu publikodun eta parekatuek berehala jakinarazi beharko diote hori Etika Publikorako Batzordeari eta, idatzita ahal bada, gatazka horren berri eman beharko dute, edo, bestela, gutxienez, unean bertan edo etorkizunean balizko interes-gatazka bat egon daitekeelako zalantza jakinarazteko betebeharra dute.

Idatziak aipatu organo horren erantzuna jasoko du berehala. Interes-gatazka bat pizten bada, edo gatazka hori egon daitekeelako zalantza sortzen bada, kargu publikodun eta parekatuek, erakundearen izen ona zaintzeko kautelazko neurri gisa, ez dute esku hartuko ezer erabakitzeko edozein prozesutan, prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat pizteko zalantza txikiena ere egonez gero.

- Kargu publikodun eta parekatuek, aurreko atalean aurreikusitako egoeretako batean badaude, nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodunen baten esku”.

12.- 2013ko urriaren 31ko idatziko lehen lau puntuetan jasotako “adierazpenetan eta alegazioetan”, Zuzendari Nagusiak bere ibilbide pertsonal eta profesional garbiaren alde egiten du, eta bere jarduera inoiz ez duela ezkutatu esan du -publikoa eta agerikoa izan dena, bai sektore publikoan bai pribatuan-, ez dituela bete inoiz funtzio publikoak aurreko lan-harremanek baldintzatuta, ez hark eta ez senideek ez dutela partizipaziorik edo interes ekonomikorik lan egin duen sektore publikoko enpresetan, eta berdin sektore publikotik kontratatutakoetan, eta ez berak ez senideek ez dutela lan-harremanik edo -itxaropenik lan egin duen sektore pribatuko enpresetan edo kontratuak esleitu dizkienetan. Eta nabarmendu nahi du interesdunak ez duela "inolako eszedentziatik eratorritako eskubiderik, enpresa bakar batean ere".

13.- EPBk ez du zalantzan jartzen aurreko puntuan jasotako alegazio bakar bat ere. Baina, bestalde, ez dira erraz egiaztatzeko modukoak hori beharrezkoa balitz kasua behar bezala ebazteko.

Dena den, ez da batzorde honen egitekoa -ez eta asmoa ere- etikaren ikuspegitik ebaluatzea interesdunaren ibilbide pertsonala eta profesionala, ez baitu zalantzarik tatxagabea dela. Bestalde, aztergai dugun kasuan benetako interes-gatazkarik badagoen ala ez ere ez dugu ikertu behar, EJK-k lortu nahi duena, aurreko puntuetan ikusi dugunez, hau baita: “guztiz baztertua erabaki edo ebazpen bat hura hartzen duen pertsonaren [...] mesederakoa nahiz edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako **edozein susmo edo zalantza**” (5.2.4 atala), eta saihestea “pertsona edo erakunde publiko edo pribatu batzuen alde edo **favoritismo-nahiak eraginda jokatu duelako edozein susmo pitz dezakeen ezer**” (6. atala). Nahikoa da goi-kargudun edo parekatuaren jardunbideak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea haren onestasan, inpartzialtasun, osotasun edo objektibotasunari buruz, kodearen 5.2.4 eta 11.3 atalek hizpide dituzten kautelazko edo badaezpadako mekanismoak abian jartzeko: parte hartzeari uko egitea edo, bestela, alde aurretik EPB honi kontsultatzea. Lehen kasuan, EJK-k ezartzen du jardueraren onestasan, osotasun eta objektibotasunari buruzko susmoak edo zalantzak uxatzeko, gai jakin batean jakinaren gainean ez daudela dioten goi-kargudunek eta parekatuek "beren erantzukizunak hierarkian gainean dutenaren esku utzi behar dituztela, edo bestela, baldintza horien eraginpean ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodun baten esku". Bigarren kasuan, EPB honek berak egingo luke dagokion proposamena edo gomendioa, aurrez eskatuta.

Dena den, sozietateko Zuzendari Nagusiak ez dio uko egin eta ez dio kontsultarik egin EPB honi kontratua esleitu baino lehen, ez eta (...) enpresarekin kontratua sinatu ondoren ere. Eta bistakoa da, interesdunak edo haren senide hurbilenek (...) enpresa-multzoan edo hura osatzen duten enpresetako batean interes zuzenak dituzten edo lan-itxaropenak dituzten alde batera utzita, arduradun publiko batek sektore publikoan hasi aurretik lehen lan egiten zuen enpresari edo sozietateari kontratu bat esleitzeko erabakia hartzeak, soilik zortzi hilabete pasatuta hura utzi zuenetik, susmoak edo arrazoizko zalantzak sortzen dituela, eta horiek errotik moztu behar zirela, dela uko eginez, dela gaia batzorde honen esku utziz.

Hain zuzen ere, EJKren helburu nagusietako bat politikaren zentzu etikoa berreskuratzea da, hiritarrek erakunde publikoetan berriro konfiantza izateko; eta horretarako, nabaria da onestasanaz, desinteresaz, osotasunaz, objektibotasunaz eta inpartzialtasunaz gain, goi-kargudunen eta parekatuen jarduera-esparru etikoak balio eta printzipio horiek zaindu egiten diren itxura eman behar duela, errespetatu egiten direla eta zorrotzasunez betetzen direla. Bide profilaktikoen bidez soilik berma daiteke errotik erauztea zalantza eta susmo txar guztiak. Esate baterako, EJKn jasotako neurrien bidez: uko egitea eta aurrez EPBri kontsultatzea.

14.- Adierazpenen eta alegazioen idatziko 5. eta 6. puntuetan, interesdunak alegatzen du aztergai den kontratazio-prozeduran, esleipen-akordioa sinatu baino ez zuela egin, sozietateko zerbitzu teknikoek egindako balorazio teknikoak eta proposamenak oinarri hartuta, *Sozietateko Kontratatzeko Barne Jarraibideetan* ageri dena arduraz betetz. Bere jarrera, beraz, "inibizio aktibokoa izan zen [...] lehiaketa irabazteko eskaintza aukeratzeko prozesuan". Gainera, espedienteaz aztertzen den zerbitzua 2006tik ematen dela dio "fabrikatzaile beraren antzeko teknologiarekin" eta horrekin lotuta 2010etik egindako kontratazioek "ikuspegi teknikotik eta, beraz, esleipen-txostena egitearen ikuspegitik pertsona bera izan dutela arduraduntzat". Bestalde -eransten du- azken urteetan "espedientearen xede den teknologiararen fabrikatzailearekin egindako materialen eta zerbitzuen kontratuak zuzenean esleitu direla, eksklusibotasun-arrazoiak zirela eta. 2013an, publizitatea eta lehia eta guztizko kontratazioak izapidetzeari ekin zitzaion".

15.- Ez da EPB honen zeregina Sozietate Publikoak zerbitzuen kanpoko kontratazioa arautzeko emandako arauen erregulartasuna edo egokitasun juridikoa epaitzea. Aztertzen ari den kasuan kontratazio-espedientearen legea betetz eta Sozietate Publikoak berak horretarako ezarritako aginduak betetz izapidetu zen aztertzea ere ez dagokio. Eskura duen dokumentaziotik ondoriozta daiteke ezarritako kontratazio-jarduteak bikainak direla, objektibotasunaren eta interes publikoaren defentsaren ikuspegitik, eta gure kasu konkretuan, kontratazio publiko guztietan esleipendunaren aukeraketa-prozesuan nagusi izan behar duten objektibotasuna eta inpartzialtasuna babesteko ezarritako prozedurak zehatz-mehatz errespetatzeaz gain, zenbait berme nabarmendu dira, eta "publizitatea eta lehia eta guztiko prozedura" erabili da; aurreko urteetan, berriz -2010, 2011 eta 2012an-, zerbitzu bera kontratatzeko, "esleipen zuzenak" erabili ziren.

Baina arestian adierazitako moduan, ez da interesdunaren kontratazio-jardutearen erregulartasuna edo egokitasun juridikoa guk aztertu behar duguna, baizik EJKrekiko -aurtengo ekainaren 19an atxiki zen- egoki jokatu duen. Behin gaia eremu horretan kokatuta, bistakoa dirudi interesdunak EJK urratu zuela, EPBren aurretiazko irizpena jaso gabe, uko ez egitea erabaki eta kontratu baten esleipena sinatu zuen eta zegoen eskaera egin zion zuzendaria izendatu aurretik -duela zortzi hilabete soilik- lanean egondako enpresa-taldeko sozietate bati.

Oro har ezarritako kontratazio-prozedurek kontratazio publikoa arautzen duten arauak zehatz-mehatz betetzen dituzte, bai eta Sozietatean bertan horretarako emandako jarraibideak eta objektibotasun- eta inpartzialtasun-printzipioak ere. Baina horrek ez du esan nahi interesdunak ez zion uko egin behar, edo bederen, aurrez EPBri kontsulta egin behar zion, bere jardueraren inguruan sor zitezkeen zalantza eta susmo txar guztiak uxatzeko; izan ere, beste bultzagarri bat zen, kontsulta bat egiteko, eta aztertutako dokumentazioa ikusita, badirudi kontratu-jardunean kontratazio-organoaren zeregina zerbitzu teknikoek egindako proposamenak sinatze hutsa dela; eta, horrenbestez, erabakia interesdunaren aldekoa izan liteke, agian. Aurretiko izapide hori kautelazko edo badaezpadako izaerarekin ezarri zen,

jardueraren onetasun, osotasun, objektibotasun eta inpartzialtasunari buruzko zalantza edo susmo txar guztiak errotik erazteko. Eta izapide hori ez egin izanak EJKrekiko atxikimendua formalizatzean hartutako konpromisotik kanpo uzten du interesduna, eta eskaera, haren zenbatekoa medio, elkartuta formulatu izanak ez du batere aldatzen egoera, EPB ez baita jakitun Sozietateko presidentek -hark ere dokumentua sinatu zuen- eta Zuzendari Nagusiak lan-harremana izan zutela aurrez sozietate esleipendunaren enpresa-taldearekin.

Beraz, ez da egia, interesdunak "adierazpenak eta alegazioak" idatzian alegatutako moduan, "etikoki eta juridikoki posiblea den bere jardura esleipen-txostena bideratzea izan zela". Ekainaren 19an atxikitako EJKren arabera jokatu izanez gero, uko egin behar zion, edo bestela, bere partaidetza EPBren iritzia mendeko jarri, zegokion proposamena edo gomendioa egin zezan.

16- Interesdunak "adierazpenak eta alegazioak" idatziaren lehen lau puntuetan emandako arrazoiei buruz arestian adierazi dugun moduan, gogora ekarri behar da, idatzi bereko 5., 6. eta 7. puntuetan adierazitako alegazioen harira, aurrez (...) enpresa-taldean lan egin izanak eta (...) firma talde horretakoa izateak -hura da "(...)" kontratuaren esleipenduna- , kontratazio-organoaren arduraduna den Zuzendari Nagusiak berak erabakita, gutxienez arrazoizko zalantza bat sor dezakeela interesdunaren jardueran "balizko gatazka-interes bat izan dela" pentsatzeko. Publiko egin eta berehala EPBren jakinaren gainean jarri behar zen gatazka, EPBk bere iritzia eman zezan -EJKren 11. atala-. Edo bestela, interesdunak uko egin behar zion, eta ondoren, ardurak nagusi hierarkikoaren esku utzi, edo, bestela, egoera horietako ezeinetan ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodun baten esku (EJKren 11. atala *in fine*).

17.- Interesdunaren idatziko 7. puntuan adierazitako alegazioan berriro esaten da prozesuan interesdunak izandako parte-hartzeak "ez duela eragin inolako epairik edo baloraziorik egitea, ez eta inolako kalterik ere Administrazioari", eta ez dela izan "pertsone fisiko edo juridikoren batenganako faboritismo-nahirik edo susmo txarrik zabaltzeko moduko jardura bat". Eta hortik ondorioztatzen du bere jardueraren ondorioz "ez duela ezein pertsona edo erakundek inolako abantailarik edo desabantailarik lortu, ez zuzenean ez zeharka".

Baina, beste behin ere, gogora ekarri behar da hiritarrek berriro erakundeetan konfiantza izan dezaten, hori baita EJKren xede nagusia, ez dela nahikoa jardura likitsak eraztea, interes subjektiboak eragindakoak, osotasuna, objektibotasuna eta inpartzialtasuna alde batera utzita egiten direnak. Horrez gain, administrazio-jardura akats horietatik at garatzen denaren itxura babestu behar da; eta horretarako, kautelazko eta prebentziozko mekanismoak ezarri behar dira, EJK-k aurreikusten duen moduan, eta interesdunak, berriz, ez zuen horren berri izan bere jardueraren objektibotasun, inpartzialtasun eta desinteres subjektiboari buruzko oinarriidun arrazoiak zeuden balizko batean arrazoizko zalantzak egon zitezkeela pentsatzeko.

18.- Interesdunaren aurkako "susmo txar hutsa behar besteko argudioa" ez dela dioen alegazioak, "babesgabatasuna eragingo bailuke, behar bezala egiaztatuta egongo ez balitz", ez

du batere aldatzen aurreko puntuetan adierazitako arrazoiketa. 5. puntuan adierazi den moduan, EJKren jarduera ez da gauzaten estatuaren *ius puniendia* erabiltzean emandako zigor- eta diziplina-izaerako arau juridiko baten exekuzioaren esparruan. Aitzitik, aurkitzen dugun arau-esparru juridikoaren bestelakoa da: esparru etikoa edo morala da, juridikoki lotesleak diren arauetan oinarritzen ez dena, baizik bere borondatez atxikitzen den pertsonak nahitaez bete beharreko arauetan oinarritzen dena. Eta esparru horretan, erruduntasunari eta errugabetasun-presuntzioari lotuta, ez dira aplikagarriak esparru juridiko penalean edo zehapen-esparruan ezarritako arau orokorrak. Susmo hutsa ez da, jakina, egozpen bat egiteko edo errugabetasun-presuntzioa hausteko behar besteko oinarria, esparru juridiko penalean edo zehapen-esparruan; baina interesdunak joan den maiatzaren 19an sinatu zuen EJKn berariaz adierazten denez, "ebazpen bat hartzen duen pertsonaren [...] edo edozein motatako interes partikularrek eragindakoa izan daitekeelako edozein susmo edo zalantza" saihestu behar da (5.2.4 atala), ez dute egingo "faboritismo-nahien susmorik sortuko duen praktikarik edo jarduerarik" (6. atala) eta Eusko Jaurlaritzako kargu publikodunek eta parekatuek interesdunak bete ez zituen jokabide profilaktikoak bete behar dituzte. Eta horretan datza urratzea.

19.- Idatziaren 8. puntuan adierazitako alegazioak ez dira oso desberdinak, eta horien bidez gauzatu du interesdunak entzuna izateko eskubidea. Interesdunak berriro adierazten du "kontratazio-prozesuan bere zeregina aurkeztutako eskaintzei buruzko epairik edo baloraziorik egitea ez zenez, ez zegoela inolako talkarik, ez pertsonalik ez publikorik", eta halaber, ezin dela esan "inolako negoziarik edo jarduerarik zuenik, zuzenean edo zeharka interes publikoekin talka egiten zuenik". EJKren iritziz, Akordio honetako 13., 14., 15. eta 16. puntuetan azaldutako arrazoiak puntu honetan planteatutako galderak behar bezala erantzuten dituzte.

20.- Azkenik, interesdunak beregan sortu den "babesgabetasun-sentsazioa" adierazten du, bere duintasuna eta izen ona, pertsonala eta profesionala, baldintzatuta gera daitezkeelako "informazio jakin batzuegatik, beren kabuz interesdunaren jarduera profesionala aurrez epaitzen dutenak", eta errespetatzen duen Administrazioako kide denez, ezin baitu aurka egin. Horri dagokionez, EPB honek soilik esan dezake balorazioa egitean ez duela inolako aurreiritzirik kontuan hartu; aitzitik, esku-hartzea eskatu zuen pertsonak igorritako dokumentazioa -batik bat, kontratuari buruzko- eta interesdunak berak aurkeztutako alegazioak eta dokumentuak erabili ditu oinarritzat.

21- EPB honek "alegazioa bi egunetik beherako epean ikusi, gertaerak egiaztat hartu, niri entzun gabe eta kontrastatzeko elementurik izan gabe [...] soilik 24 orduko epea izanik egoki iruditzen zaizkidan adierazpenak eta alegazioak egiteko" eta horrek interesdunaren "babesgabetasun-sentsazioa" handitu duela dioen alegazioari dagokionez, egokia da adieraztea kexa azaltzeko egindako idatzia interesdunak entzuna izateko duen eskubidearen ondorio dela, hain zuzen; eta, beraz, zaila da defendatzea entzunaldi-izapidea ez zela egin. Interesdunak adierazi beharrekoa entzun dugu, hain zuzen "ziurtzat" ez jotzeagatik prentsako

informazioan agertu ziren gertaerak; eta horrek EPB honen esku-hartzea eragin du 24 orduko epean, erantzun azkarra behar duen gai batean, eta hori erabat arrazoizkoa eta neurritzkoa da. Dena den, interesdunak epe luzeagoa behar izan balu "adierazpenen eta alegazioen" idatzian eska zezakeen, eta EPB honek baiezkoa erantzungo zion, zalantzarik gabe.

22.- Aurreko guztiagatik, batzorde honen iritziz EJKren oinarri diren balioak, printzipioak, jokabideak eta portaerak urratu dira, batik bat osotasunaren balioari dagokionez eta inpartzialtasun eta objektibotasun, onestasan eta desinteres subjektibo printzipioei, bai eta eredugarritasunari ere. EJKren balio nuklearrak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Instituzionaleko goi-karguek eta aldi bateko langileek eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako zuzendariak bete behar dituzte; eta oso bereziki, kontratazio-prozeduretan, EJKren 5.2.1 atalak xedatutakoa betez.

23.- Beraz, portaera hori, EJKren iritziz, argi eta garbi hautsi da jokabide eta portaera jakin batzuk betetzeko eta haiei eusteko betebeharra. Jokabide eta portaera horiek EJKn ezarritako balio, printzipio eta jokabideen edukia, asmoa eta izaera errespetatu beharko lituzkete, eta batik bat, osotasunari dagokionez. Osotasuna kargu publikodunen eta parekatuen atxikipen sistematiko eta iraunkor gisa ulertu behar da onestasan, inpartzialtasun, objektibotasun eta gardentasun printzipioei eta esparru juridikoaren eta pertsona guztien errespetuari dagokienez, haien izaera edonolakoa izanik, ingurune publikoan parte hartzen badute edo harekin harremanetan badaude, bai eta bere eskumeneko gaiak kudeatzean ardura-parametroen pean jarduten badute ere.

Betiere kontuan hartu behar da EPBk debekatutako jokabideen mugaren azken xedea dela kargu publikodunek eta parekatuek beren lanean hartu beharreko erabakietan inolako interferentziarik ez izatea, onestasuna eta eredugarritasuna sustatzea, ordezkatzan duten erakundearen inpartzialtasun- eta osotasun-irudia babestea, erakundearen eraginkortasuna sendotuz, eta hartara, euskal hiritarrek erakundeetan konfiantza berreskuratzea, eta zehazkiago, egungo Eusko Jaurlaritzaren eta haren goi-karguenganako konfiantza.

Horren guztiaren ondorioz, EPBk hartzen du honako

ERABAKIA:

LEHENA.- (...) -ko Zuzendari Nagusiak EJK urratu du, ez diolako berehala batzorde honi jakinarazi gatazka-interes bat egon zitekeela eta gatazka-interes horrek talka egin zezakeela bere betebeharrekin eta ardurekin. Bide horretatik, ahal izanez gero idatziz eman behar zuen gerta zitekeen gatazka horren berri, edo gutxienez, gaur egun edo etorkizunean balizko gatazka-interes bat egon zitekeenaren zalantza jakinarazi behar zuen nahitaez, eta gainera,

uko egin behar zuen, jarduera hartan interes pertsonal zuzena edo zeharkakoa izan zezakeelako, edo interes-gatazka egon zitekeela ondoriozta daitekeelako.

BIGARRENA.- Zuzendari Nagusiak objektibotasunaren oinarrizko printzipioa urratu du, “(...)” kontratua gaur egungo karguan aritu aurretik lan egin zuen (...) enpresari esleitzean. Azken batean, euskal hiritarrek erakundeetan duten konfiantzari kalte egin dio, eta zehazkiago, Eusko Jaurlaritzaren eta bertako goi-karguen eguneroko jardunari. Politikaren zentzu etikoa eta hiritarrek erakundeetan duten konfiantza berreskuratzearen aurkakoa da.

HIRUGARRENA.- Horrenbestez, EPBk, EJKren 3.2 atalean ezarritakoa betez, etika- eta jokabide-arauak hautsi direla zalantzarik gabe egiaztatu ondoren, interesduna Zuzendari Nagusi kargutik berehala kentzea gomendatzen dio Zuzendari Nagusia izendatzeko eskumena duen organoari; hau da, (...) -ko Administrazio Kontseiluari.

LAUGARRENA.- Gainera, gogorazi nahi dio interesdunari, EJKren 3.3 eta 18. ataletan ezarritakoaren arabera, banakako atxikipen-ekitaldian organo eskudunari bere dimisioa aurkezteko konpromisoa hartu zuela EJKn zehaztutako urratzeren bat eginez gero –Akordio honen gorputzean arrazoitu den moduan-, kasu horretan urratutako jokabideak ondorio hori eragiten badu.

BOSGARRENA.- EJKren 16.3 ataleko hirugarren puntuan adierazitakoak ahalmena ematen dio EPB honi “Etika eta Jokabide Kodean beharrezkoak diren aldaketak proposatzeko, gora igorri eta Gobernu Kontseiluak aintzat har ditzan”. Ahalmen hori baliatuz, EPBk urteko lehen txostenean sartuko duen hausnarketa bat formulatu nahi du.

Akordio honetan aztertu den kasua ez da EPBk aztergai izan duen lehenengoa -hala frogatzen du 2013ko 6. zenbakiaren bidez identifikatu den espedienteak-, baina bai EJKri atxikitako arduradun publiko batek egindako EJKren urratzea esplizituki planteatzen den lehenengo kasua. Euskal erakundeen agertokian erabateko berritasuna den EJKren planteamendua gizarteratu eta barneratu egin behar dute erakunde publikoek eta kargu publikodunek eta parekatuek fase honetan, haiek baitira berritasun horren xede. Gainera, aztertutako kasuan, arduradun publiko baten jarduera ageri zaigu. Eta ebidentzia guztien arabera, sektore publikoko kontratuen legeria eta zuzentzen zuen sozietate publikoak emandako kontratazioari buruzko aginduak zehatz-mehatz betetzeaz gainera, esleipenduna aukeratzeko prozesuan erakundeko zerbitzu teknikoaren gain utzi zuen aukeraketaren pisua, interesdunak -kontratazio- organo gisa jarduten zuenak- haiek egindako esleipen-proposamena sinatu baino ez zuela egin argudiatuz.

EJKren urratzea ez da gertatu, beraz, onestasan, interes partikularrik eza, osotasun, objektibotasun eta inpartzialtasun printzipioak zuzenean eta publikoki urratu direlako, egon zitekeen interes-gatazkaren inguruko zalantza eta susmo guztiak uxatzeko EJK-k berak ebazitako kautelazko eta prebentziozko mekanismoak erabili ez zirelako baizik. Edo, beste modu batean esanda, EJK-k postulatu dituen balio materialak ez dira urratu, bertan ezarritako mekanismo profilaktikoak urratu dira, balio horiek urratzen ez diren itxura babesten dutenak. Eusko Jaurlaritzan berriak direlako eta duela gutxi ezarri direlako, agian ez dira oraindik behar bezala errotu arduradun politiko guztien laneko ohituretan.

Baldintza horiek guztiak kontuan hartuta, badirudi EPBk proposatutako neurria gehiegizkoa edo neurritik kanpokoa dela interes publikoari egindako kaltearekin alderatuta. Bada, itxuraz, interesdunak EJKn ezarritako prebentziozko eta kautelazko neurriak bete gabe eragindako kaltea, seguruenik, bete izan balitu sortutako kalte bera da. Dirudenez, ezarritako kontratazio-prozeduraren zurruntasunak ez du beste aukerarik ematen.

EPB honek EJKren esparruan jardun behar duen arren, hura aldatzea eska diezaioke horretarako eskumena duen organoari. Dena den, EJK-k ez du erreakzionatzeko aukerarik uzten aztergai dugun kasua bezalakoetan; hau da, "arau etikoak eta jokabide-arauak urratu direla zalantzarik gabe egiaztatu denean edo jokabide-estandarrak behar bezala bete ez direnean". 3.2 atalaren arabera, horrelakoetan hiru aukera daude: Ministerio Fiskalaren esku uztea –ez da batere egokia kasu honetan–; organo eskudunaren esku uztea, dagokion diziplina-zehapena izapidetzeko –hori ere ez da egokia kasu honetan–; eta "ezarritako jokabideen balioak, printzipioak edo estandarrak ez betetzea eragin duten ekintza batean edo ez egite batean nahasita egon den pertsona edo egon diren pertsonak berehala kargugabetzea" gomendatzea. EPBk azkena aukeratu du, bere esku zeudenen artean egokia zen bakarra zelako. Baina eskertuko luke aukera gehiago izatea, bere jarrera modulatzeko eta erantzuna egiaztatutako urratzearen benetako larritasunari egokitzeko. Horrenbestez, uste du Eusko Jaurlaritzak zabaldu egin beharko lukeela EJKn aurreikusitako aukeren tartea, EJKren aginduen urratzeak –ez baitute denek larritasun bera, jakina– EPB honek proposatutako erreakzioaren modulazioa behar badu, neurriari dagokionez.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko Presidentea

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 4a